

Ezker eskuin: formalki aztertuta (IV)

Zeharbidetzan ibili naiz. Baina gogoeta guziok, ezker/eskuinik ba al dagoen galde-
tzeko hirugarren modu batetara garamazkite zuzen-zuzen, eta iadanik galdera hortara helduak
gaituzte:

EZKERRA ETORKIZUN BEZALA

Hirugarren modu honetan ere galde daitezke, gaur
oraino eskuinik eta ezkerrik ba al dagoen: alegia, dau-
den eskuinak eta ezkerrek benetakoak ote diren begi-
ratzeko. Frantziar, adibidez, sozialistak eta komunis-
tak ezkerriar bezala dabilte. Eta halaxe ez da falta,
Frantziar ezkerrik ez dagoela, eta ahalegin biziz "be-
netako ezkerria" sortzen hasi dela dionik.

Norbaiti iruditzen baldin bazaio, dagoen ezkerrek
bere funtziorik ez duela betetzen, laster irudituko zaio,
ezkerrik batera ez dagoela. Marxen egunetan ere ba-
zuden ezkerrek eta eskuinak. Baina (Marxen ustez)
esker haiek ez zieten problemak nahiko radikal eta
sakon heltzen. Ez zitzairen benetako problemak be-
netako sustrairi atxikitzen. Eta, beraz, Marxek egia
zuzen-zuzenean, eskuinaren eta ezkerriaren axolarik
gabe, bilatu behar zela, esaten zuen. Ezker eta esku-
inetatik kanpora jartzen zuen egia, baita bere burua
ere.

Eta ez nuke borobil-borobil baieztatuko, baina sus-
moa badut: Euskal Herrian ere, sentidu hortan, orain-
dik (edo iadanik, gehiago) ezkerrik ez dagoela. Ez-
kerra oraindik sortzen eta forma hartzen ari dela.

Sortzen ari den ezker honetaz, Enkelsok Alemania-
ko Alderdi Sozialistari buruz esandako hitzak buru-
ratzen zaizkit: "Baina egiazko potentzia bat bihur
zedin, lehenbiziko kondizioa hauze zen: lortu berri
zuen batasun hura arriskutan ez ipintzea". Ondu ira-
kurrik, han esan nahi du: gure ezkerrek, potentzia
bat izateko, irabazi dituen gauzakoak atzera gaitz-
erik ez dadukala, ez arrikutan jartzetik eta batasuna
bilatzera jo beharra dadukala, indar guzuekin: "indar
guzti hau denon etsaiaren kontra erabiltzeko".

EZKERRA TA TOTALISMOAREN TANKERA EZBERDINAK

Beraz, niri agiri zaidanez, ezkerrik badagoela baine
gehiago, ezker bat erntzen eta burutzen ari dela, esan
beharko genuke apika. Gerra ondoko gizartea materia
nahasi baten antzera begira daitezke, formarik gabe-
ko orearen modura: materia hortatik piskana-piska-
na ezker berria sortzen eta garatzen ari da. Eskuina
askoz geroago hasi eta askoz azkarrako burutu da
(bururik gabe-edo, "burutu" bait da, izan ere).

Ezkerari, berria, batzutan zapaburu (xalburu (apo-
txali) baten antza hartzen zaio: buru haundia eta
gorputzik apenas.

Baina ez gaitzezen engaina: ekintzaleen eta inte-
lektualen arteko harreman nahaskunak ez dira gure
zorigaitzen iturburu bakarra. Ezta garrantzitsuenak ere.
Dudarik gabe, harreman horiek zuzenagoak izan balira
(hau da: zuzenagoak izaterik izan balute) aspaldi
konponuta edukiko genituen beste burubausek haiek.
Ekintzaleak eta "ideologuak" batzuek ibili izan ba-
lira, alegia, Nolanahita ere, ezkerrean formazioak
arazorik latzena totalismoari eman behar litzaiokeen
tankera ari da gertatzen.

Mogimendu honek hasiera-hasieratik zedukan hel-
burua bi zaitan erabiltzen da behin eta berriro: Eus-
kal Herriaren ganako ardurak eta langileekiko, elka-
rren kontrario gertatzen ari zaizkigu behin eta berri.
Gure problemen analogiak eta ikasbideak milaka ekar
genitzaizke, noski: Vietnam ala Irlanda, Bangla Desh
ala Kurdistan, Ginea ala Angola. Sorterri sozialista
bat helburutzat duten askatasuna mogimendu guzietan
daude, aberriaren askatasuna gehiago azpimar-
katzen duten batzuk, eta sozialismoaren alderdia ge-
hiago azpimarkatzen duten beste batzuk. Eta diferent-
zia horiek ez dira mahaipean ezkututzen, batasu-
na lortzeko: baina kasu guzi horietan lortu egin da
batasuna, diferentzien gainetik. Iarreko Vietnamen
bertan, Giap jenerala "bertzaleetakoa" da. Eta gauza
jakina da, bere lankide ta burkideen artean bertan
"kontrario" oso gogorrek dadukala horregatixe. Bai-
na gure artean ohi dena baine zentzudunagoak ere
bai, inondik ere: ez dira behintzat diferentzia horie-
tan gaitzen.

Nolatan gabilta gu, berria, beti bikoitzasun ar-
tean: nazionalismo/interna ionalismo, nazio/klase,
etc.?

Esitzeakoa ere bada askotan: krisi batetik irten
orduko begi bietaraino hurrengoan sarturik gaudela,



gaitzaldiz ta ekaitzik ekaitz zealdoka goazela, ikustea.
Ia urtero edo bi urtez behin ezbehar haundiren bat.
hau ez dago konprenituz, "ezker berriaren" ezau-
garri bereziaren kontuan hartu gabe: herritasunaren
problemak, eta langile klasearen (proletario, nekaza-
ri, arantzale, ta beste zernahi izan) burruka batetan
bateratzea. Xede honen berezko zailtasunaz nahikoa
idatzi izan da, eta ez naiz hortan sartuko.

Baina badago, xedearen beraren kanpotik xede
hori biziki zailten duen arrazoi inportante bat ere.
Ez dago ahazterik, mogimendu hau lehendik bestek
okupaturiko lurretan ernea dugula: bazegoen han "ko-
munismoari" errezelez eta gaitzerizko begiratzen zion
norbaite, eta "txobinismoari" begi berdin-berdinekin
begiratzen zion beste bat halaber. Biok sentitzen zi-
ren beren domeinuetan jaun eta jabe. Bakoitzak bere
eskualdea zedukan. Hazaldi berriaren ezker berriak,
aldiz, hauen bion antinomia gainditu nahi luke (be-
raz, biok ukatzen ditu eta sintesi bat bilatzen du).
Biok sentitzen dira mogimendu honek mehatxaturik,
harrapatuz. Eta biok arriskuan jartzen dute mogi-
mendu hau: biok nahi lukete bereganatu eta kolko-
ratu. Arriskua berebizikoa da, noski, mogimendu hau
bere oinen gainean ongi finkatu arte.

Honek egiten du hain zaila, totalismoari (edo ideo-
logiari) tankera garbi eta zehatzik aurkitzea. Gehi-
etan formula soil, bituz batetan gelditu behar izaten
da: bai han eta bai hori, nahi dugu guk. Baina hau
eta hori herria, klaseak) nola bat egin, zehazkiago
espikatzen hasi orduko, deabru denak hasten dira
dantzan.

Izan ere, ideologiari kasu bakoitzean "de fakto"
ematen zaion tankera, funtzionala da: politika jakin-
en baten funtzioetan dago. Eta horrek sortzen du,
gure artean espikazio ideologikoak berehalaxe ematen
zaien karaktere bikoitza. Espikazio horiek espika-
zio ideologiko huts bezala ikusten dituenak, gehiene-
tan ezin ezer konprenitu izaten du. Denek arrazoi
dutela, iruditzen zaio. Eta ezin konprenitu izaten du,
nondik nora sortzen diren halako etabaldak gogorrak
eta ezinikusiak. Azken funtsean gorabehera sujetibo
eta pertsonal hutsak ez ote dire, gero, etabaldak guzi
horiek?

Ez, ez eta ez inolaz ere. Egia da, gizonak aspaldi
ikasi genuela, nolana hiko ideologiak eginez ere, beti
ideologia "onak" egiten, eta beti "egia" predikatzen.
Astakeriarik haundienei ere ez zale sekula ideologia
"onik" eta "egiaren" predikurik faltatzen. Ideologia
ta egia, ordea, ez noki eta ez txarrik dira berez: eza-
gugai hutsak dira. Eta balio, indartzen eta zuzen-
tzen duten estrategiak ekintzak, haina balio dute. He-
rri-eritza zentsurapean lotzen duenak, "egia" dio, be-
netako eritzi librerik ez dagoela, eta manipulazioak
gertatzen direla, etab., esanez. Grezian eta Portuga-
len honela argudiatzen bait dute. Egia hori zertarako
erabiltzen den, ikusi behar da, ba. Era berean, lite-
ratura hutsaren edo "l'art pour l'art"-en teoria, esa-
terako, progresista da gaurko Sobiet Batasunaren;
eta erreazionario Portugalen. Edo larriago: arrazis-
mo beltza, aurrerakoia eta iraultzagilea da USA-n
(zer: arrazismo beltzik badagoela aitortzeko, ikaratu
gingo ote gara?) eta arrazismo zuria erreazionarioa
da hantxe bertan. Itsusiak biak dira, zein baino itsu-
siago. Eta anakronikoak, etab. Beharbada arrazismo
beltzak forma primitiboagoak ere badaduzka zuriak
baino "zurik" "zuriagoak" gara!: Black is beautiful...
...Baina abstraktueria galantegia litzake, biok ber-
dintzea.

Hauxe da gure problema, ta hauxe da, gure prob-
ma hain iluna ta nahasia bihurtzen duena ere. Gure
"mitoak" kritikatu behar direla? Bai, janna; zergatik
ez? Pedagogia liberatzailea sartu behar dugula ikas-
toletan? Zeharo konforme. Langileria askatu behar
dela, eta ez duela zer ikusirik, haren zapaltzaileak eus-
kaldunak ala batuzi diren? Amen Jesus. Predikatzen
hasiez gero, zeinek ez du "egia" predikatuko ba...?
Umeak nola hezi erabakituko, gurasoen dagokiena az-
keneko hitza? Bidezko dirudi horrek. Batzuek ikas-
tolek "aprobetxatu" nahi dituztela? Bai, noski. Horri
bat garelako? Halakotzat gaudukate batik-bat. Hizkuntza
izugarriko balio kulturala ta soziala dela, herriaren
azugarri inportanteenetakoa, etab.? Herriek aske ta
beren eskuko izan behar dutela? Herri guzietak dutela,
beren gobernatutako tresna politikoen jabe izateko es-
kubide? Azken fineko zapalketarako ekonomian duela
ardatza...? Dena "egia", eta dena deusezarako egia.
Edo-ta dena "gezurra", segun zertarako erabiltzen den.

Hemen ere egia da, praktiak espikatzen duela teo-
ria, egiteak pentsatzea.


Eta halaxe egin ohi da. Praksiarekin, ordea, ez
dago baten edo besteren ekintza ententzerik, eta bai,
azken finean, desarroilo historikoa baina, "X" talde-
takoak liberalagoak direla besteak bera. Hurren-
go taldekoak fanatikoki batzuk dirudirela? Harako bes-
tekoak señoitxo hutsak direla? Beste halakori burge-
sek pagatzen diotela? Eta zer? Baliteke, proletarioak
asko mintzo dena, gero poesiak egiten jardutea, su-
kaldeko beroan, edo igual arkeologia izatea, edo bur-
geskume señoitxo bat izatea ere. Eta baliteke, aberriaz
asko mintzo dena, floriolista bat, txinbeleta biltzai-
laren bat, edo atzertarria, edo proletario izatea ere.
Hau da, beren teoria eta beren praktia zeharo bi
mundu diferentetakoak izatea. Baina horrek ez du as-
ko esan nahi (interesik gabekoa denik esan gabe. Bai-
na bai, eman ohi diogun baine inportantzia gutxiago
duela, esanez: bere lekuan du horrek interesik). Hau
ere ez dago pertsonalizatzerik: gonparazio baterako,
Garatek, nire ustez, Marxekin egin zuen bezala. Teo-
ria bat eta praktia bat elkarrekin neurtu nahi ba-
duela, mogimendua ta prozesu historikoa eta berauen
reflesioa bakarrik neur daitezke. Errealidades sozial-
historikokoak eta berauen dagozkein ideiak neurtu behar
dira elkarrekin, eta ez predikaren praktia (individual-
ki) ta errealidades sozial-politikoari buruzko beren erit-
ziak. "Egiteak predikatzen dizutena, ta ez heuren
dagitena".

Euskal Herrian, antinomia historiko bat gainditu
nahiez sortu den ezker berriaren sustraia, erreald-
deko bikoitzasun sozial eta politikoa hura baldin bada,
bikoitzasun hura antzaketat hartzen eta espresat-
zen ez duten teoria denak, atzera lehenagoko anti-
nomiarra itzultzen dira. Eta bestela guziki aintzakoak
eta "egiazkoak" balira ere, eta gaurko buruek era-
gindako estremismo bezala konprenigarriki izango ba-
lira ere, funtsean berditu da: edozergatik izanda
ere, bi puntu haiekotoren bat ahazten (?) duena, ez-
ker berri honen hasiera-aurrerak itzuli; antinomiaren
fasera. Honek ez ditu halako teoriak ipso facto deska-
lifikatzen, noski: baina bistan dago, halakoarentzat,
euskal ezker berriaren helburu dobleak bigedegabezko
agertu behar duela. Eta berdin alderes: ezker be-
rriak, berak burrukatzen dituen Alderdi antinomiko
haiekotoren baten laguntzale bezala ikusiko duela
hura. Izan ere, ez bait dago ahazterik, indar haiek
ez dandela lotan.

Beraz, ideologiari ematen zaion tankera konkretua,
beti izan daiteke "egiazkoa" ta zuzena. Baina haren
aurrean hauxe da egin beharrezko galdera: orain eta
hemen, zein politikari zerbizten dio? Ideiarik onenek
izan bait lezakete arrakastarik txarrean. Moralak ta
politikak ez dira inolaz ere gauza berbera, baina badute
zerikusirik: moralak ere "politikoa" izan beharra da-
duka, eta alderantziz.

JOXE AZURMENDI



ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA  DONOSTIA	BURNI - SALSABAIK Urbilata, 25	ELECTRODOMESTICOS EPKERRAKO ELEKTRO- TRESNAK Urbilata, 27 - Inbaid 5, 2	RAILITE LEGEZKO ZABALTXAILEA Aldaenea, 4	Urrutiak: 44800 ta 44870
---	--	---	--	-----------------------------